

Izen-abizenak :

Ariketa	1 (2p.)	2 (2p.)	3 (2p.)	4 (2p.)	5 (2p.)	Guztira: 10 p.
Lortutako puntuak						

1- (2 puntu) 2010eko Ohikoa A aukera

Hiru gutun ezberdin hiru jasotzaile ezberdini bidaliko zaizkie. Jasotzailearen izen bakoitza dagokion gutun-azalean idatzita dago. Gutunak zoriz azaletan sartu dira (azal bakoitzean gutun bat). Aurkitu:

- i. Gutun bakar bat jasotzaile zuzenari heltzeko probabilitatea;
- ii. Gutun bat ere jasotzaile zuzenari ez heltzeko probabilitatea.

2- (2 puntu) 2010eko Ohikoa B aukera

Hiri handi batean 900 biztanleko lagin bat zoriz aukeratu da, eta haietako 85 emigrante gertatu dira. Aurkitu:

- i. Hiri osoko emigranteen proportzioaren % 95eko konfiantza-mailako tartea.
- ii. Proportzio beraren % 99ko konfiantza-mailako tartea.

3- (2 puntu) 2013ko Ez-Ohikoa A aukera

Beren lehenengo enplegua duten tituludun berrien hileroko soldatek batezbestekoa 1.300 € eta desbideratze tipikoa 600 € dituen banaketa normal bati jarraitzen diote.

- i. Kalkulatu hilean 600 € baino gutxiago irabazten duten tituludunen ehunekoa.
- ii. Kalkulatu hilean 1.000 eta 1.500 euroren artean irabazten duten tituludunen ehunekoa.
- iii. Kalkulatu hilean 2.200 € baino gehiago irabazten duten tituludunen ehunekoa.

4- (2 puntu) Txanpon ekilibratu bat 400 aldiz botatzen dutu. Zein da lorturiko aurpegi kopurua 180 eta 200 artean egoteko probabilitatea?

5- (2 puntu) 2014ko Ez-Ohikoa B aukera

Unibertsitate batean, Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematikako sarbide-probetako puntuazioek batezbesteko ezezaguna eta 1,8 puntuko desbideratze tipikoa dituen banaketa normal bati jarraitzen diote. 36 ikasleko lagin batean, puntuazioa, batez beste, 5,5 puntu izan da. Kalkulatu % 95eko eta % 99ko konfiantza-mailako tartea populazioaren batezbestekorako.

Probabilitatea

Banaketa Normala

Binomialetik Normalera

Konfiantza Tarteak

Proportzio bidezko banaketa Konfiantza Tarteak

Limitearen Teorema Zentrala